

www.noaua.com

Noaua !!



Aginagak ere badu bere pilotalekua



**2003ko aurrekontua,
Kultur Etxearen erritmoan**



Sagardotegia

Urtarrilaren 17an irekiko dugu!



Aginaga, Telf: 943 37 26 91
Egunero irekita, igande gauean izan ezik.



Urtarrilaren 1etik irekita!

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31



SAGARDOTEGIA

✕ BASERRIETARAKO:

Abere elikadurarako produktuen horniketa eta nekazari lanerako behar diren produktuak: ongarriak, fitosanitarioak, tresnak, baratzantza, haziak, patata, e.a.

✕ BERTAKO PRODUKTUAK:

Ardoa, txakolina, sagardoa, zainzuriak, piperrak, babarrunak

✕ LORAZANTZA ETA ETXEETARAKO:

Burdindegia, plastikoak, otarrak, txakur, katu eta txori jana



BETIKO "SINDIKATUA" ORAIN BERRITUA, JENERO GEHIAGOREKIN

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14 - E-mail: alkartasuna@fcae.org

Txirrikitutik



Egilea: Juanito Illarramendi, 60. hamarkada, Kale nagusia Udal fototeka

Urtarrilaren 20a, San Sebastian eguna, egun handia donostia-irrentzat, baita azpeitiarentzat ere. Usurbildarrok egun horretan jai eguna ez izan arren, danborradaz gozatzeko tartetxo bat hartuko dugu seguruenik; batzuk bezperan hurbilduko dira Donostiara, beste batzuk beriz egunean bertan, eta beste askok telebistatik nahi adina danbor soinu entzuteko aukera izango dugu.

Gure herrian ere, bada danbor festarekin lotuta dagoen aspaldiko ohitura. Santixabel bezperako saioa hain zuzen. Honen erakusgarri alboko argazkia duzue. 60. hamarkadan Garbi-Alai Elkarteak antolatutako danborrada, Txaramunto eta udaletxearen artean dago hasteko prest. Ez daude asko, baina nahikoak soinu ederrak ateratzeko. Argazkian danborrik ez da ageri; barrilak bakarrik atera ote ziren? Garbi-Alai Elkarteko banderaren eskuinean, ohorezko emakumea eta ezkerrean zuzendaria; justu atzean bi ilaratan sukaldariak bere barril-ekin eta atzean txaranga.

Eskuinaldean oraindik Atxegalde auzoa egiteke, Ingemar lantegiaren kartel handi bat ikus dezakegu, gezi batez lagundurik. Ezkerrean beriz garai batean oso ezaguna izan zen zinema aretoa eta Txaramuntoko etxearen izkina. Zenbat danbor-jole paseatu ote da herriko kaleetan barrena?

Zalao Amaiz, fototeka_ usurbil@euskalerrria.org



OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta Noaualko Txirrikutiko atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez udal fototekarekin harremanetan, udaletxeko 2. solairuan gaude (9:00etatik 14:00etara). Bestela, **943371951** telefonoan edo fototeka_usurbil@euskalerrria.org e-postan aurkituko gaituzu. Garai bateko argazkien bidez gure herria hobeto ezagutzeko aukera izango dugu. Anima zaitez!

Noaua!!

Argitaratzailea : *Noaua!* Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea : Imanol Ubeda
Kazetariak: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea: Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea: Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak: Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Zalao Arnaiz eta Agurtzane Solaberrieta.

Informatika: Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818
Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Aurkibidea

ZUTABEAN, AITZIBER MATXAIN	4. ORR.
BERRIEMAILEAK KALEJIRAN	6. ORR.
PORRUSALDA	10. ORR.
Hasiak dira Askatasuna Plaza itxura berritzeko lanak	
PILOTALEKU BERRIA MARTXAN	15. ORR.
AURREKONTUAK, ALDERDIEN ESANETARA	16. ORR.
OLENTZERO NOAUA! TXIKIN	18. ORR.
LEHIAKETA ETA DENBORAPASAK	19. ORR.
INFORMAZIO PRAKTIKOAREN TARTEA	20. ORR.
EKITALDI AIPAGARRIENAK AGENDAN	22. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal preso-



Euskal Herria!

AZALA

Kultur Etxe berriaren aurrekontua izango da aurtengoa.

Zutabea



AITZIBER MATXAIN

Neguba

nguruan sumatzen dudana nire galbaheatik pasa ondoren zuenganatzeko saiakeran naiz beriz.

Atzera begira jarrita, azkenekoa udazkenean izan zen, orduan besteak beste, hego haizeak uzta garaian dituen onurez hitz egitera ausartu nin-tzen, jakina baita eguraldi kontuetan ere garaian garaikoa bezalakorik ez dela. Hau gogorarazi nahi nieke azken egun hauetan egiten ari den eguraldia "hotzarekin" kexu direnei. Garai honetan negu giroko eguraldiak badu aparteko xarma eta edertasunik!

Gogoan dut urte hasierako hego haize epelak txoraturik, nola hainbat altza, sahats, aranondo ... kimu berritzen eta loratzen hasi ziren. Azken urteetako eguraldi nahasi eta eroarekin gaixoak badute nahikoa lan asmatzen!

Izan ere, landare hauek, tenperaturak goxatzearekin batera neguba pasa eta beren loreak ernaltzeko garai egokia delakoan, beren indarrak hosto eta lore berriak sortzera bideratzen dituzte eta baita bueltan



zaplazteko galantak jaso ere. Ez pentsa hego haizeak bazter guztiak berdin nahasten dituenik, badira zuhurragoak, eta hotzik pasa gabe neguba amaitu dela sinisten ez dutenak, sagarrondoak kasu. Hauek hainbat hotz ordu pasa arte bereari eusten diote, hego haize epelenari kasurik egin gabe.

Beraz, udaberri goxo eta oparoaren zain, egin dezala neguban hotz.

Zutabegileak: Luis Aranalde • Olatz Altuna • Aitziber Matxain •
Ainhoa Azpiroz • Aitor Landaluze • Mikel Usabiaga

Ika Mika ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

Hurrengo alea: urtarrilak 31. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** urtarrilak 24.

Postaz: Noaua! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil

e-posta bidez: noaua.k.e@euskalnet.net



Igandetan ganba-ziri mundialak!

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

Ika-mika



Anai Handiaren adimen ikaragarria

Kaixo Aginaga eta Usurbil! Espainiar estatuko espetxe batetik idazten dizuet, azken egunetan buruan bueltaka ibili dudan ideia baten inguruan. Espetxea gizartearen islada omen da. Ekosistema hau kanpotik dirudien baino ikaragarriagoa da. Hemen klase guztietako jendea pilatzen gara, gehiengoala hala ere, drogaren munduak ekarri ditu hona. Bizimodua hemen bilatzea nahikoa erraza dute azken hauek. Euskal Herrian bezalaxe, espetxean sistemak bere sarea jada osatua duelako.

Ez dago zirrikiturik non droga iristen ez denik. Eta egia esan behar bada, bere helburua ederki lortzen du bi esparru hauetan. Hemen, egunero zuzenean, eta iragarkientzako mozketarik gabe, ikustera behartuak gaude. Goizeko 10:00etan funtzionarioek megafoniatik "metadona" oihukatu eta modulua hustu egiten da. Telebistan agertzen diren "Ñu" artalde horietako bat ematen dute. Arrapaladan, aurretik nor eramango duten begiratu ere egin gabe. Edabe magikoa hartu ondoren, arkumeak baino otzanago bihurtzen dira.

Hori metadona bakarrik hartzen badute, zeren hemen izan ohi diren "pastila" festa "ilegal" edo "legal" hauekin orduan bai!! Anai Haundiak lortu du bere helburua!!!

Moduluaren 3/4a zonbi hutsen moduan pasiatzen da. Zonbi, zonbi ere ez, zeren bakan batzuk ahiturik duten burmuinarekin partsisean jokatzeko kontzentratzea lortzen dute. Astearte arratsaldeetan "reparto de medicación" oihua entzuten da megafoniatik (goizean kontsulta egon da) eta orduan hasten da sprint berezia. Eta aste baterako pastilak, egun batean hartzen dituzte hurrengo egunetako "monoan" pentsatu ere egin gabe. "Monoa" baino gorila ere ematen duen arren. Zein adimen ikaragarria duen Anai Handiak, "1984"an baino kontrolatuagoak ditu bere morroiak.

Kalean ere, gazteriak usteltzen jarraitzen du. Gero honek guztiak ekarriko dituen ondorioetan pentsatu gabe edo beldurgarriagoa dena pentsatuta, badirudi zonzibiz inguratuak bizitzera kondenatuak gaudela. Baina zer egingo diogu ba norberak aukeratzen du bere bidea edo galbidea.

Gurasoei esango nieke baietz, droga gizartean inork uste baino errotuago dagoela. Gazteei esan nahi diet, hemen, espetxeko pareta batean idatzirik dagoena: "si quieres ser feliz inténtalo, pero ante todo se tú".

Jokin Errasti, Aranjuezko espetxetik

PATRI
JATETXEA
 - Eguneroko menuak
 - Plater konbinatuak
 - Ogitarteak
 Telf: 943 36 27 25
 Kale nagusia, 14

gorriti
EDARITEGIA
kafe berezia
 San Esteban kalea, 8
 TLF 36 27 70
 20170
 USURBIL

RAMON BARCENILLA
 . Pikor- pintura eta gotele lanak
 . Papereztatze-lanak
 . Pintura-lanak oro har
 Aristixo, 8-5.a 20170 USURBIL
 MOBILA: 629 46 09 66

BORDATXO EDARITEGIA
PINTXO BEREZIAK
 Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

ESTETIKA ZENTROA
 LOURDES LARRA AG
 - Depilazioak
 - Aurpegiko tratamendua
 - Manikura
 - Betileen permanentea eta tintea
 - Azaleko garbitasuna
 - Makilajea
 - Masajeak
 - Solariuma
Irazu kalea, 12-behea
Telf: 943 36 28 87

ARRAINDIGA
PELLO
 Puntapax Kalea,7
 Tlf 36 21 64
 USURBIL

IÑAKI
LABAKA

Txokoalde

Elur, angula eta sagardo kontuak

Duela aste pare bat, turroia jaten makutzik genbiltzan eguraldi zeharo epelarekin, 20 graduko temperatura gaindituz. Eta tenporak iragarri zuten horrela jarraituko genuela pixka batean, baina egun hauetan bapatean Ipar Europako fronte hotz bat sartu zaigu, tenperaturak ikaragarri behera eginez.

Egingo zuela esan bazuten ere, auzoan ez du elurrik egin. Bai ordea Andatzen. Iragarritako aurreneko egunean bota zuen elurra mara-mara, hamabost bat zentimetro, eta hor iraun zuen urtu gabe zenbait egunetan.

Igandean ikusi zituzten hirurogei bat haur mendi tontorrera igotzen, gozatuko zuten ederki elurretan jolasten.

Urte zaharreko gaua gurean ere usadio bihurtzen ari dela dirudi. Horrela, hamabi mahatsak jan bezain pronto, suziariak bota eta bota hasi zen zenbait auzokide. Hogei bat minututan ez zen giro izan: alde batetik zarata, bestetik erantzuna. Lau

katu gara auzoan eta hiri handi bat zirudien, alajaina!

Etxetik kanpora atera eta hor egon ginen harriturik eta parrez ikuskizuna ikusten. Denak lehertu zituztenean, betiko isiltasuna. Hala ere, norbaitek utzi zituen suziri batzuk hurrengo egunerako, izan ere, arratsaldean jo eta su bota eta bota aritu baitziren berriro. Hori da hori urtea alai eta pozik hastea!

Bestalde, angula sasoia aurrera doa eta aurten-goia ere oso txarra izango da, aurrerantzean hobetzen ez bada behintzat. Ibai bazterrean argiak ikusten dira, baina agian beste urtetan baino gutxiago. Badirudi etsipenak jota edo, angula eza dela eta, zenbait angulero bero-bero etxean gelditzea erabaki duela.

Bukatzeko urte berriarekin txotx garaia ate joka datorrigu. Sagardogileek kupeletan prest dute sagardo berria sagardozaileek noiz dastatuko. Hurrengo lau hilebetetan izango da aukera.

EKINE
OLAIZOLA

Kaleberri

Ametsetan bezala

Lurrikara batek eraginda bezala egin ldu dar-dar nire oheak. Goizeko zortziak inguru dira, ez dakit ziur, esnatu berria bainaiz eta Gabonetan hain goiz esnatzea ez baitut ohiko.

Ametsetan ari naizelakoan oraindik, ekaitza imajinatu dut trumoi ikaragarriekin, tximista zorrotzekin eta haizeak nire leihoko kristalak hautsi eta pertsianak danbategokoa mugitzen direlarik. Beldurgarria benetan! Nire onera etorri naizenean, beste dardara bat sentitu dut eta neure artean, "esnatu naiz ba jada! Irudipenak izango dira".

Hirugarren dardaran eskuak paretean jarri ditut dardara egiazkoa den ziurtatzeko eta, bai, hala da. Jeiki eta leihoa zabaldu dut, orduan konturatu naiz nire

etxe ondoko eraustearen edo erorketaren ondorio direla dardarak. Nire etxea behera datorrela iruditu zait eta beldurra badut nik, eta orduan "zer izango dute Aritzeta gainean bizi direnek?"

Erosketak egitera jaitsi eta Aritzeta gainera begiratu eta leihostatik behera pitzadurak ikusi ditut eta izututa amari deitu diot. Berak "lasai, neska! Hori beti gertatzen da honelako gauzetan" eta ni harrituta, lasai samartuta, ordea, pentsatzen jarri naiz. Nola liteke honelako pi-tzadura arriskutsuak hain maiz gertatzea, batere babesik ez hartzea eta hain normaltzat hartzea? Gero, Udarregi batabatean erortzeak ez nau harritzen, baina honela egin behar bada...

Hurren arte!

Hiru bat kontu

Lehenik eta behin, urte berri on guztioi. Orain gutxi, milurte berriaren hasiera zela eta ez zela, bagenuen nahikoa kontu, eta jada mila horietatik hiru egin ditugu. Denboraren makinak ez duela frenurik!

2003an sartu berri garen honetan, hiru gai aipatu nahi nituzke Kalezarko txoko hau bete-tze aldera. Batetik, drogamenpekoei laguntza emateko sortu zen "Gizakia Helburu" izeneko proiektuaren azken faseko zentru bat gure auzoan ireki berri dela aipatu behar.

Orain urte batzuk, izan zen gune hau gure auzoan, mojen konbentuaren zati bat erabili zen horretarako, eta orain berriro toki bera hartu dute helburu berberekin.

Auzokideok pozik daude gisa honeta-

ko proiektuek gure auzoan lekua dutela ikusirik eta esan ahal dugun neurrian esfortzu latz eta arantzatsu horretan diharduten pertsoneri laguntzeko prest gaudela.

Bigarrenik, aipatu baita ere, joan den urtarrilaren 6an, errege egunez eta urtero legez, Peña Pagola elkarteko kideek batzar nagusia burutu zutela. Aurten, junta aldaketa egin da, beraz jende berria izango da elkarteko karguak betetzen.

Azkenik eta bukatzeko, esan behar sagardo denboraldia gerturatu dela jada eta gure auzoko sagardogileek denbora asko baino lehen irekiko dituztela euren kupelak denboraldi honetako mama goxoak guztiok dasta dezagun.

Hurrengoan kontu gehiago!

Kalezar



ANDONI
UDABE

Beherapenak eta gorakadak

Osasunarekin urratu urte berria. Hasi dugu beste urte bat eta ez dauka atzera bueltarik. Pasa dira jai guztiak, pasa dira oporrak, berriro ikastolara, berriro lanera, nahiz eta gustura egon etxe giroan, bakoitzak bere zereginetara itzuli behar.

Osasunarekin urratu Olentzerok edo Erregeek ekarritako oinetakoak, prakak, berokiak, eskularruak, galtzerdiak, liburuak, jostailuak, bizikleta edo dena delakoa... agian norbaiti kotxe edo motorren bat ekarriko zioten edo loteria tokatu, horrela baldin bada, zorionak benetan.

Normalean gustura irekitzen da edozein opari edo detaile txikiena izanda ere, ilusioa egiten digu. Baina ez egun hauetan bakarrik, urtean zehar egun asko ditugu horrelako detaileak egiteko eta ilusio

gehiagorekin bizitzeko.

Bestalde, ikastola inguruan hasi dira danbor hotsak eta pentsatzen dut ilusio handiz ospatuko dutela egun hori.

Azkenik, beherapenak edo merkealdiak. Gure auzoko dendetan badago zer erosia eta zerbait erosteko baldin badugu orain aprobetxatu beharko, mereziko du eta. %30eko beherapenak ditugu eta lehen esan bezala, osasunarekin urratu.

Hala ere, eskerrak zerbait behar izaten den, zeren urtea hasi orduko gauza guztiak garestitzen baitira. Aldapa gora hasten gara: egunkaria dela, ogia dela... orokorrean, gauza guztiek gora egiten dute: noiz arte horrela.

Horregatik diot, beherapenak ala gorakadak?

Atxegalde



JONE
EIZMENDI



Santuenea

ISAAK
MUÑOZ JAKA

Azken berrikuntza

Gure auzo txikian ez dira berrikuntza askorik egiten. Baina kasu honetan, berrikuntza txiki bat egiten ari direla esan beharra dago. Berrikuntza txiki hau, egia esan, aurrerapena dela esan beharra dago.

Zubitik bestaldera, Usurbil aldera alegia, espaloia dago bide guztian zehar. Baina zubitik auzo barrukaldera, espaloia moztu egiten zen duela gutxi arte. Orain espaloia hau luzatu egin dute zelaia inguratuz. Zergatik esaten dut aurrerapena dela, zeren espaloia hau jarri duten toki honetan, umeak autobusa hartzen duten tokia delako. Orain, lasaiago egoteko toki gehiago dute. Lehen, espaloirik ez zegoenean, ume asko elkartzen ziren, gainera ume hauek gehienetan gurasoen laguntzarekin

egoten ziren autobusaren zain.

Toki honetan trafiko dexente egoten da, bai Zubietak, San Estebanek eta auzoko bizilagunek eragina. Ni, egia esan, lehen ez nintzen konturatu espaloia beharra zegoela, baina orain konturatzen naiz berrikuntza onerako izan dela.



Negua eta hotza



Urdaiaga

ALAZNE
BEGIRISTAIN

Lehenik eta behin, 2003 urte honetako nire lehen kronika aprobeztatuz, urte berri on guztioi!

Azkenik, badirudi negua iritsi zaigula, beldurtu ere egin gaituzte pixka bat. Alerta egoeran ginela, elurra egingo zuela... Helduak arduratuta, haurrak ilusionatuta. Baina elurra Andatzatik beherra jaitsi ez zaigunez, hortantxe gelditu da dena; Andatza zurituta ikusita alegia.

Egia esan, denborarekin gauzak asko aldatzen dira. Oroitzen naiz, haurra txikia nintzenean eta negua iristen zenean, zer nolako pozarekin joaten nintzen ikastolara eramaten gintuen autobusa- ren geltokira. Handik Aia-mendi ikusten zen (ez dakit mendiak honelako izena duen baina nik hala deitzen diot). Hura zuria baldin bazegoen, hona ere laster

elurra etorriko zenaren seinale zen. Batzutan, iristen zen, bestetan aldiz, ez; baina tira, irrika harekin sartzen ginenean ohera, hurrengo egunean elurra ikusiko genuela pentsatzearekin.

Gaur egun, ordea, beste gauza batzuk kezkatzen naute; elurra egiten badu inora joan ezin dudala gelditu beharko dudala, izotza egiten badu, berriz, lehenago esnatu behar dudala kotxea behar den moduan eduki ahal izateko...

Hala eta guztiz ere, esan beharra daukat dena ez duela txarra neguak! Lo primeran egiten da eta giro honekin, nahiz eta goizetan altxatzeko nagikeria nagusi izan.

Ea hurrengorako, eguraldia alde batera utzi eta albiste interesgarriren bat aurkitzen dudana zuei kontatzeko.

Auzotar batzuei agurra

Urte berri on denoi! Urte bat bukatu eta besteari hasiera eman diogu. Oso alaitsua izan zen urte aldaketa, bazen etxafero eta eskopeta tiro ugari, urte berriari ongi etorria emateko. Osasuna eta pakearekin igarotzeko grazia izan dezagula.

Bide batez, aipatu nahi dizuet auzotar familia batek eman digula agurra, Oriora bizitzera joan direlako.

Harreman onak izan ditugu elkarrekin eta horregatik hutsune handia utziko digute, batez ere Malen eta Antxonek. Gainera, hilaren 23an du bere lehenbiziko urtebetetzea Antxonek, beraz, muxu handi bat berarentzat.

Eta bertso batekin dijoakizue nire agurra.

Bederatzi urte orain dirade
bizitzera etorriak
seme-alaba pare ederra
auzo hontan dira jaiokak
Iñaki - Eva
Malen ta Antxon
bihotzez nire agurra
egunero leihotik begira
nabariko det zuen hutsa
Orion zorientsu izan da
noiz behinka etorri bisita

Aginaga



MARIA
ANGELES
ARRUTI

Gabonak pasata, orain komeriak

Orain ez denbora asko, Gabonak oso urruti ikusten genituen, beranduxeago gainean genituen eta konturatzerako pasa zaizkigu. Zenbaitek pena handia izango dute azkar pasa izanagatik, baina beste batzuek aldiz, jan eta edanaz nazkatuta pasatzeko gogoz egongo ziren.

Denon akatsa izaten da Gabonetan gure gorputzari eransten dizkiogun kilo horien arazoia. Apetitoa ere izugarri irekitzen zaigu, baina arazo guzti honi konponbide erraz eta azkar bat emango diot eta herritarrei gomendio bat luzatuko diet: Zubietara etorri eta bertan kirola egin, oinez, bizi-kletaz nahiz korrika, inongo oztoporik gabe eta bakoitza bere aidera.

Gabonak aipatu ditudanez, esan beharra daukat hiru erregeak Zubietara ere iritsi zirela zaldi gainean. Bertan, hainbat karamelu banatu zituzten eta hainbat haur eta ez hain hurrekin hitz egiteko aukera izan zuten.

o aia aldatuz, esan beharra daukat gabon

hauen hasiera inguruan, ezbehar baten ondorioz Ameri baserriaren ondoan argi-indarraren farola bat lurreratua izan zela, eta oraindik orduan gelditu zen bezalaxe dagoela. Ea gogoratzen diren eta poste berri bat jartzen diguten.

Azkenik eta bukatzeko, inork aipatzen ez duen gauza bat aipatu behar dut: gure auzoan entrenatzen duen lehen mailako futbol taldea lidergotzan jarraitzen duela eta oso bide onetik doazela Errealeko jokalaria. Ea honela bukatzen duten: animo mutilak, gora Erreala!!!

Zubietara



ALEX
UDABE



Euskal Txokoetarako begirale bat behar da

Eguberriak amaitu eta jada eskolan ditugu herriko txikiak. Euskal Txokoak ere, laster zabalduko ditu ateak. Aurten, ordea, Noaua! Kultur Elkarteak izango da zerbitzu hau eskainiko duena. Dena prest dugu, soilik begirale bat falta zaigu. Interesaturik bazaude, ekarri ezazu kurrikuluma Noaua!ko bulegora.

Urte amaieran Udalak lehiaketa bidez esleitu zuen Euskal Txokoaren zerbitzua. Lehia estua izan bazen ere, azkenean Noaua! Elkarteak hartu du bere gain zerbitzu honen kudeaketa. Arestian aipatu bezala, begirale bat falta zaigu. EGA edo baliokide den agiri eta begirale titulua badituzu,



Euskal Txokoan lanpostu bat eskura dezakezu. Usurbildarra izatea ere baloratuko da. Bidali kurrikuluma urtarrilaren 20a baino lehen.

Noaua! Elkarteak, Bordaberri 3, Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil.

E-posta: noaua@topagunea.com

Itxura berria hartzen hasi da Askatasuna Plaza

Askatasuna plazaren porlanezko itxura apaindu asmoz, Udalak lehiaketa bat jarri zuen martxan. Carlos Zabalak irabazi zuen lehiaketa "Beira" izeneko egitasmoarekin. Egitasmoa zena egi bilakatzen ari da egun hauetan. Jada ipini baititu lehen irudiak.

Berritzailea da Carlos Zabalaren proposamena. Eta lehen arrastoei begira, koloretsua eta bizia. Herriko ohiturak eta bitxikeriak ere islatuko ditu artelan honetan. Iturritik hasi da Askatasuna plaza atontzen. Dena



den, udaberria arte ez dugu artelana oso-osorik ikusiko, maitatzen amaituko baitu "Beira" izeneko egitasmoa. Carlos Zabalak adierazi digunez, "proiektua oso atsegina da baina gogorra, era berean".

SAN MAKOS MANKOMUNITATEAREN HITZALDIA

San Markoseko Mankomunitateko hiri-hondakinak kudeatzeko Plan Integralak (SMHHKPI) hasierako onespina jaso du.

Mankomunitateak iritzia emateko gonbitea luzatu nahi die hiritarrei. Horretarako, informazio-bilerak eta eztabaidak antolatu ditu San Markoseko Mankomunitateko eremuko gizarte eta ekonomi eragileekin, herri-elkarteetako ordezkariekin, enpresekin, sindikatuarekin eta abarrek. Usurbilgo kasuan, abenduaren 9an ordezkari politiko eta udal teknikariekin bildu ziren. Herri-erakunde eta herritarren txanda, aldiz, urtarrilaren 21ean izango da, 19:30etan hasita. Pleno aretoak jasoko du aurkezpen-ekitaldi hau.

Jendaurreko prozesua amaitutakoan, aurkeztutako arrazoibideak ebatziko dira eta plana behin betirako onartzeari ekingo zaio 2003ko otsailera bigarren hamabostaldian.

SANTIXABELETAKO JAI BATZORDEAREN LEHEN BILERA, 30EAN

Urtea hasi besterik ez da egin eta Santixabeletan pentsatzeko ordua da. Horretarako deia behin-tzat egina dago. Hilaren 30ean, osteguna, jai batzordeak lehen bilera egingo du udal pleno aretoan. 20:00etan hasiko da eta, noski, bilera herritar guztiei irekita dago. Beraz, proposamenik baduzu, badakizu nora jo behar duzun.

WITZINGA
HERRIKO TABERNA
 Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...
 Tel. 943 36 02 17

Euskal preso

Urtinea
 Loreak - Lore landareak
 Lore sortak - Koroak

San Esteban
 Tlf.: 943 36 22 55

Noaua! elkartea ere, Interneten



Noaua! Kultur Elkartea sortu eta handik gutxira, herriko zein elkarteko datuak ipini genituen Internet sarean. Topagunearen zerbitzariatik bisitatu zitekeen gune hori. Ikasturte honetan, ordea, urrats berri bat eman dugu eta jada gure domeinu propioa eskuratu dugu: www.noaua.com. Harrez gero, gunea atal eta zerbitzu gehiagorekin hornitu dugu.

Usurbilgo historia edota Noaua! Kultur Elkarteko kontuak jasotzen dira gure web gunean. Era berean, Oharrak eta Agendako datuak kontsulta daitezke www.noaua.com helbidean. Ez hori bakarrik, astelehenero, albiste bat topatuko duzu. Herriko kontuak, deialdiak eta albisteak biltzen ditugu albiste honetan eta astero-astero berritzen dugu.



ORDENAGAILUAN WWW.NOAUA.COM
KLIKATU ETA ASTERO ALBISTEGI BAT
TOPATUKO DUZU.

Baina badira bestelako atalak ere. Eusko Trenen ordutegiak ere topatuko dituzu eta baita gurekin zuzenean harremanetan jartzeko e-posta helbidea ere: noaua.k.e@euskalnet.net.

Bestelako egitasmoak ere baditugu eta laster ikusiko dituzue mundu osora zabaldu dugun leihoan.

ALDIZKARIA ERE, HAMABOSTERO SAREAN

Noaua! aldizkaria Nhamabostero iristen da Usurbilgo etxe guztietara. Jada 151 dira plaza-ratu ditugunak. Dena den, irailetik hona, aldizkaria paperean jasotzeaz gain, sarean ere kontsultatu dezakegu. Eta jakin badakigu, hamabostero sarean jarri dugunetik kanpoan diren usurbildar askok esker onez hartu dutela eman dugun urrats berria.

Etxeetara iristen den egun berean sarean ipintzen dugu aldizkaria. Beraz, kanpora ateratzen zarenean, Internet gela batean sartu, www.noaua.com klikatu eta ordenagailuan topatuko duzu gure aldizkaria.

Zuk ere elikatu dezakezu www.noaua.com

Partehartzea sustatzeko tresna bikaina da Internet. Epe labur honetan, hori izan da gure ardura nagusietako bat. Interaktibitatean sakontzeko mila dira gaur egun eskura ditugun baliabideak. Guk jada zabaldu dugu nabigatzailea eta Noaua! arteko bide zuzena. Gure web gunean sartu eta gure atarian eskubiko zutabetxo hori topatuko duzue. Bururatzen zaizun iritzia, albiste edo iradokizuna instant batean bidaltzeko aukera duzu. Apurka apurka, jaso ditugu hainbat albiste eta hainbat iradokizun ere. Gainera, zuk hala nahi izanez gero, une oro anonimotasunean mantendu zaitezke.

Oharretarako datuak izan dira orain

arte nagusi. Azkena, hauxe: *"katu polit bat oparitzen dut. 9 hilabetekoa. Emea. 637 193 100"*.

Proposamenak ere jaso ditugu: *"kaixo. Proposamen bat egin nahi nizuke. Zergatik ez duzue drogaren gaia lantzen? (...)".* Ongi etoria proposamena. Txus Congilen analisi bat argitaratu genuen duela gutxi baina iradokizuna ondo gogoan izango dugu.

Gure akatsak zuzentzeko ere balio-garria izan daiteke [noaua.com](http://www.noaua.com). Hona hemen internauta batek bidalitakoa: *"Katarroa sendatzeko erremedioak izeneko atalean, "litro bat ur egosi" jarri duzue, eta Usurbilen ura irekin egiten da ez egosi"*. Beno, ados...

:: Parte hartu gure webgunean!

Bidali zure

- .. Albisteak
- .. Ekitaldia
- .. Iritzia

WWW.NOAUA.COM GUNEAN PARTE HARTZEA OSO ERRAZA DA.

San Markoseko Mankomunitatearen hondakinak kudeatzeko Plan Integrala

Bazenekien...

- ➔ Europako Batasunetik ingurumena zaintzeari buruz datorren araudia gero eta zorrotzagoa da, eta ondorioz, behartuak gaude hondakinak kudeatzeko modua moldatzera.
- ➔ San Markoseko zabortegia bete egingo da 2006. urterako.

...ezin dugula orain arte bezala jarraitu?

Gutako bakoitzak 470 kg zabor sortzen du urtean. Kantitate horretatik, hondakinen ia %25a berreskuratzen da gaur egun, hau da, hiri-hondakinen %75 San Markoseko zabortegira eramaten da.

Zer egin dezakegu gure hondakinekin?


San Markoseko Mankomunitatearen hiri-hondakinak kudeatzeko Plan Integralean, hurrengo 14 urteetan (2002 - 2016) bete beharreko helburu zehatz batzuk finkatu dira.

Garrantziaren arabera:

Maximizatzea	PREBENTZIOA	- Zabor gutxiago sortzea. - Berrerabilera indartzea.
Maximizatzea	BALORIZAZIOA	- Materia birziklatzea/konpostajea. - Hondakinen energia berreskuratzea.
Minimizatzea	ELIMINAZIOA	- Isurketa.

Balorizazioko helburu hauek ipini dira, 2016a bitarteko aldirako:

gutxienez
%41
Birziklatzea




%55
Errausketa, energia berreskuratuz

gutsienez
%4
Konpostajea

Herritarrek parte hartu

Nola lor daiteke?

Plan Integralak, ondorengo tratamendu-konbinazioa proposatzen du:



Mankomunitateko hiri-hondakinak integrala (2002-2016)



SAN MARKOS-EKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS

Funtsezko konpromisoak:

- 1 Proposatutako azpiegiturek titularitate publikoa izango dute.
- 2 Ahalik eta gehien aprobetxatu behar dira hondakinetak errekurtsoak, hots, materialak eta energia.
- 3 Isurketa gutxitu. 2006. urtetik aurrera, bestelako aprobetxamendu-aukerarik ematen ez duten hondakinak soilik isuriko dira zabortegean, beti ere aurrez, beraien arriskugarritasuna murriztu ondoren.
- 4 Balorizazio energetikoak (errausketa-instalazioa) ezingo du inoiz, sortutako hondakin guztien %60a baino gehiago tratatu, modu horretara murrizketa, berrerabilera eta birziklatzea bultzatuz.

Azpiegitura berriak

- ➔ Gaikako bilketarako edukiontzi gehiago.
- ➔ Beste 4 garbigune, hiritarrek hondakinak gaika berezita eramán ditzaten.
- ➔ Konposta produzitzeko planta bat.
- ➔ Hondakinak errausteko instalazio bat, energia berreskuratzen duena.

San Markoseko Mankomunitateko Batzarraren hasierako onespena 2002ko urriaren 9an.



"Jende aurreko erakusketa eta herritarrek parte hartzeko prozesua"



San Markoseko Mankomunitateko Batzarraren behinbetiko onspena 2003ko otsailaren 2. hamabostaldian.

Partehartzeko prozesua

Har ezazu parte!

Mankomunitatea osatzen duten udalerrri guztietan antolatu dira Plan honetaz informatzeko eta eztabaidatzeko hitzaldiak. Begiratu ondoko taulan, eta hartu parte.

UDALERRIA	EGUNA	ORDUA	TOKIA
Urnieta	Urtarrilaren 10a, ostirala	18:30	Lekaio kulturetxea
Astigarraga	Urtarrilaren 13a, astelehena	18:30	Udaletxeko Osoko bilkuren aretoa
Pasaia	Urtarrilaren 14a, asteartea	18:30	Pasai Antxoko kulturetxea
Hernani	Urtarrilaren 15a, asteazkena	19:00	Biteri kulturetxea
Oiartzun	Urtarrilaren 16a, osteguna	19:00	Udaletxeko Osoko bilkuren aretoa
Lezo	Urtarrilaren 17a, ostirala	18:30	Alondegia
Usurbil	Urtarrilaren 21a, asteartea	19:30	Udaletxeko Osoko bilkuren aretoa
Errenteria	Urtarrilaren 22a, asteazkena	18:30	Xenpelar etxea
Donostia	Urtarrilaren 23a, osteguna	18:30	Koldo Mitxelena kulturunea
Lasarte-Oria	Urtarrilaren 24a, ostirala	18:30	Manuel Lekuona kulturetxea

Etortzerik ez baduzu, biziki eskertuko genizuke zure iradokizunak eta ekarpenak bidaltzea. Plan Integralaren testu osoa kontsultatu nahi izanez gero, San Markoseko Mankomunitatearen web-orrian aurkituko duzu.

www.gipuzkoa.net/san-marcos

Vitoria-Gasteiz, 10 - 20018 Donostia - San Sebastián - Tel.: 943 21 49 77 - Fax: 943 21 89 83


Noaua!!

Bazkideentzat eskaintza!

Tapak urtez urte



Koadernatu 2002ko Noaua! guztiak



Zein dira eman beharreko pausoak?

- Hartu 2002. urteko Noaua! hamaboskariaren ale guztiak (127-149) eta joan zaitez Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara, Lizardira edota Laurokera. Hor izango dituzu 2002. urteko liburukiari dagokion azala eta 2002. urteko aurkibidea. Ondoren, bi liburudenda horietako batean koadernatzeko esan.

- Noaua! Kultur Elkarteko bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan izango dituzue. Bazkide ez zaretenok, berriz, azalarengatik 3 euro eta aurkibidearengatik 1,20 euro ordaindu beharko dituzue. Koadernatzea, bazkide eta bazkide ez zaretenok berdin ordaindu beharko duzue.

- Aleren bat falta bazaizue ez izan gure egoitzan eskatzeko inongo lotsarik, liburukia osatzeko ale guztiak eskura izango dituzue eta: bazkideok doan, eta besteok ale bakoitza 1,20 euro ordaindu beharko duzue.

Lehen urratsak eman ditu pilotaleku berriak

Udal agintari eta eliz ordezkarien bedeinkapenak jaso ondoren, urtarrilaren 5etik hona martxan da jada Ariztütxo pilotalekua. Inaugurazio ekitaldian, hala ere, pilotariek jarri zuten saltsa eta piperra. Gustagarriena, ordea, aginagatarrek bertaratu gineno banatu-tako salda izan zen.

Jende asko hurbildu zen inaugurazio ekitaldira. Eztabaida askotako gaia izan den frontoia, antza denez,

nola geratu den ikusteak merezi zuen. Ekitaldiak, ordea, ez ziren pilotalekuan amaitu. Herri bazkaria Aginaga Sagardotegian egin eta jende asko bildu zen bertan. Dantzaldiarekin iritsi zen festa giroa frontoira.

Azken ikutuak falta zaizkion arren, aurrerantzean denetariko ekitaldiak jasotzeko moduko eraikina izango da. Gainera, bestelako baliabideekin ere hornitua izan da. Besteak beste,



JENDE ASKO BILDU ZEN INAUGURAZIORA.

frontoiaren albo batean ipini duten eskenatoki txikia.

Inkesta !!

Zer nolako itxura hartu diozu pilotaleku berriari?

Eta zuk zer diozu? noaua.k.e@euskalnet.net

ENRIKE HUIZI



PILOTARI, HEZITZAILE

Kristalera bat falta da. Eserlekuak Khormigoizkoa dira eta egurra behar dute. Eskuzko frontoia izateko lurra nahiko kaxkarra dauka. Frontoi onek lur-zorua beltza dute. Nik aurreko pareta berdez margotuko nuke. Baina horrek arrisku bat du, soilik eskuzko pilotarako balio dezakeela. Eta frontoi hau beste gauza batzuetarako ere erabiliko da: herri bazkari, kontzertu... Hori jakinda, ondo dago. Usurbil baterako kategorikoa, 10 koadrotik gora. Atzean, ezker pareta du eta haurrekin entrenatzeko mundiala, kaxkoan ez daukaguna. Palarako ere egokia da.

TOMAS LASARTE



EPAILE

Oso ondo dago, polita ikusten dut. Lurra ikusten diat irristakorra. Bestela, oso dotore dago.

Mailako frontoia da. Irekia denez, hotza da. Hau herrian behar genuen, nik hala pentsatzen dut, baina bestela gustatu zait.

JON ARRUTI



PILOTARI

Bai, gustukoak dut pilotaleku berri hau.

Usurbilgoa baino gehiago. Lurra, zorua egokia iruditzen zait (partida amaitu ostean egin genion inkesta). Hau baino normalagoak edo kaxkarragoak dira beste herri batzuetan topatu ohi ditugun frontoiak.

Hurrengo saioak !!

FUTBOLA

Urtarrilak 19

Emakumezkoen liga: Usurbil FT, atsedena.
Erregionala 2. maila: Martutene-Usurbil FT.
Kadeteen 2. maila: Usurbil FT - Mundarro KE.



Urtarrilak 25

Alebin neskak: Udarregi A, Jakintza A / Aldapeta B - Udarregi B.
Infantil neskak: Udarregi-Antigua Luberrri B.
Infantil mutilak: Udarregi-Urumea Ikastola.

Urtarrilak 26

Emakumezkoen liga: Antoniano-Usurbil FT.
Erregionala 2. maila: Usurbil FT-Urnieta.
Kadeteen 2. maila: Sanpedrotarra-Usurbil FT.

ESKUBALOIA

Urtarrilak 18

Jubenilak: Leizaran / Usurbil KE. 16:30etan kiroldegian.

Urtarrilak 19

Seniorrak: Usurbil KE / Donibane Cottal. 11:00etan, kiroldegian.

Urtarrilak 25

Jubenilak: Usurbil KE / Donibane. 16:30etan kiroldegian.

Urtarrilak 26

Seniorrak: Usurbil KE / CB Leizaran. 11:00etan, kiroldegian.

ARETO-FUTBOLA

Urtarrilak 18

Alebin neskak: Udarregi A, atsedena / Egape B - Udarregi B.
Infantil neskak: Karmelo - Udarregi.
Infantil mutilak: Udarregi, atsedena.

Aurrekontuak, politikarien ahotan

AURREKO ALEAN AIPATU GENUEN BEZALA, JADA ONARTUA IZAN DA 2003. URTEKO AURREKONTUA. USURBILGO SOZIALISTA ABERTZALEAK AURKEZTU ZUEN PROIEKTUAK, ORDEA, EZ ZUEN BABESIK LORTU OPOSIZIOAN. HONAKO ALEAN, BATZUEN ETA BESTEEN HITZAK ETA ARGUDIOAK BILDU NAHI IZAN DITUGU.

Usurbilgo Sozialista Abertzaleak:

“Legealdi amaierako aurrekontua gisa ulertu behar da”

Aurtengo Udal aurrekontuekin buru belarri sartu baino lehen, eta zenbaki osoil eta hotzak azaldu beharrean, aurrekontuen nondik norakoez balorazio txiki bat egin nahi dugu.

2003 urteko aurrekontuak legealdiaren amaierako aurrekontu gisa ulertu behar dira, ezin dira era isolatuan aztertu. Hori dela eta, legealdiaren hasieran Usurbilgo herriari hitz emandako konpromisoei errepasoa txiki bat ematera behartuak gaude; ikuspegi abertzale, euskaltzale eta progresisten baitan onartutako konpromisoak hain zuzen.

Arlo ezberdinetan bete ditugun konpromisoak hauek izan dira:

- Hezkuntza: Udarregi Ikastolari azaldu dutako laguntzaz gain, Usurbilen hain beharrezkoa zen haur eskola bultzatu eta egin dugu.

- Euskara: Udaleko euskara plana egin dugu, eta aurtengo eta epe ertainean eskalduntze alorrean eman beharreko pausoak zehazteko azterketa soziolinguistikoa egin; merkataritza eta lantegiak euskalduntzeko habian dugun dinamika bazterrean utzi gabe eta euskaltegi berriaren eraikuntza eta egokitzapena ahaztu gabe.

- Gizarte Zerbitzuak: Kalezarren

Eguneko Zentroa egitea izan da erronka nagusiena, Txaramunto etxean Gizarte Zerbitzuen bulego berria ere martxan jarri dugularik.

- Kirola: Aginagako frontoia egin eta ohiko kirol zerbitzuak eskaini kirol patronatuaren bitartez.

- Kultura: Kultur Etxeak hartzen du protagonismoa hemen, baina hala ere ezin da ahaztu Udal Fototeka digitala eta dokumentu historikoen inguruan egiten ari den lana. Aipamen berezia baita ere Askatasuna plazan datozen asteetan ikusiko ditugun keramika lanak; Karlos Zabala herritararen lana ikusgai izango baitugu.

- Gaztedia eta kultura uztartuz, Potxoenea gazte-kultur gunea dugu aurtengo aipagai, erabilera anitza izango duen etxea eraberritzea posible izango duen partida onartu baita 2003an. Bestalde, Eguzkitzan Gazteentzako egindako lokala ere hor dugu, gazteek beren dinamikak aurrera eraman ditzaten bitarteko ederra.

- Hirigintza: Askatasuna Plazaren eta hilemi berriaren eraikuntza lanak. Eta Zubietan egindako inbertsioez gain, Arau Subsidiarioen eguneraketa egin dugu.

Legealdian zehar, inbertsioetarako

bideratu den diru kopurua ere ezin dugu alde batera utzi, 280 milioi pezeta 2000.urtean, 383 milioi 2001.ean, 434 milioi 2002an eta 221 milioi 2003an, eta hori udalaren zorra txikiagotuz lortu da.

2003ko aurrekontuak, ondorioz, betetzeko genituen konpromisoei bukaera emateko erabiliko ditugu: Dagoeneko eginak dauden Haur Eskola eta Eguneko Zentruak urtero izango dituen gastuei aurre egiteko, Potxoenea eraberritzeko, 2004ean amaituko den Kultur Etxea eraikitzeke, Udal Fototeka zerbitzu berria martxan jartzeko, Usurbilen jasangarritasuna bermatzeko Agenda 21aren garapena aurrera eramateko, Nazio eraikuntzan aurrera egiteko eta herri libre izateko pausoak emateko Udal aurrekontuen %1a Udalbiltzari eskaintzeko, eta elkartasunezko %0'7a Euskal Fondoaren bitartez, Nikaraguan, Kuban,... proiektuak aurrera bideratzeko.

Aurtengo aurrekontuen inguruko balorazioa, ondorioz, ona egiten dugu, legealdian zehar herriari emandako hitza betetzeko ahalegin guztiak egin ditugularik, aurtengo udal hauteskundeetan, herria izango dugu epaile.



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

MAHUKA

BEHERAPENAK

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko d

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06



EA: "Sozial ikuspegitik gutxi"

Balorazioa egiteko garaian bi aspektu kontutan izango ditugu, alde batetik, aurrekontuak osatzeko jarraitu den prozesua eta, bestetik, aurrekontuen edukia.

Prozesuari dagokionez esan beharra dago Usurbilgo Sozialista Abertzaleak (USA) partehartzearen ukazioa izan duela eredu. Beraiek agintean ez dauden herrietan, herriarren partehartze zuzenaren aintzindari diren bitartean, Usurbilen, oposizioko alderdi politikoei ez zaie hausnarketa errezten. Orain dela ez asko Jose Antonio Altuna alkateak publikoki adierazten zuen Usurbilgo Eusko Alkartasunakook elkarriketarako jendea ginela. Ez dirudi Haziendako batzordeburua (Agustin Lizaso) iritzi berekoa denik; hitz hauekin bukatu baitzuen egin zigan aurrekontu proiektuaren aurkezpena: "Astebeteko epea duzue aurrekontu proposamenari zuen ekarpenak egiteko, nahiko denbora, aldaketik proposatzeko ia marjenik ez baituzue."

Edukiari helduaz esan bi puntu positibo dituela: lehena, Kultur-etxearen eraikitzea, nahiz eta dagoeneko bukatua egon behar zuen; eta bigarrena, Eguneko zentroaren irrikiera, nahiz eta epe laburrera herriko beharrak ez dituen aseko.

Aurrekontu honen onarpenak udal agintarien frakasoak konfirmatzen du,

legealdirako finkatu ziren asmo garrantzitsu batzuk ez direla gauzatuko konfirmatzen duelako. Besteak beste: Eguzkitzako urbanizaketa, Munalurraren (42 poligonoa) urbanizaketa, Kale nagusiko urbanizaketa, Zubietako pilotalekua, Harane futbol zelaiko berrikuntza eta belar artifiziala, turismorako plan estrategikoaren garapena, etabar, etabar.

Azken urteetan ohizkoak ziren asmoak ere ez ditugu aurten aurkitzen aurrekontuan: adibidez, Udarregi ikastolarako inbertsioak edo drogamenpekotasunaren aurkako kanpaina.

Aurrekontu hauetan kutsu populista eta elektorala duen arrastorik ere aurki dezakegu, nola ulertu bestela Gaztetxea egiteko 60 miloi pezeta aurreikustea; baldintza urbanistikoak betetzen ez duena, erabilera-programa garbi bat ez duena.

Populismotik asko eta ezker edo sozial ikuspegitik gutxi. Hor dato adierazgarri batzuk: Gizartekintzarako, aurrekontuaren %4,45-a bakarrik erabiltzen da; enplegu garapenerako 21.740 euro (%0,37); Nekazaritza eta ingurugirorako 39.740 euro (%0,68).

Zertan bereizten da Usurbilgo Sozialista Abertzaleak aurkeztu dituen aurrekontu hauek, eta eskuin alderdi batek (PNV edo PP) aurkeztuko litzukeenatik?



PSE-EE/PSOE: "Zuzenketa exigitzen dugu"

Alderdi Sozialistako kideok gure kontrako botoa azaldu nahi dugu. Partidistak direla uste dugu soilik herriaren zati baten borondatea ordezkatzeko duelako. Elkarriketa eta negoziazio bidez baino, nagusigotasunez "rodilloaz" onartuak izan direlako. Bitxia da baina sistema hau hainbestetan kritikatu eta PP alderdiak Madrilin erabiltzen duen berdina da.

Idiliko bezain irrealak den herri bat saldu nahi digute eta horretarako diru publikoaren bitartez hainbat proiektu finantziatu nahi dira: Udalbiltza (58.500 euro), Independentzia festa (2.500), Senideak (12.000), EUDIMA, ITOIZ, UEMA eta zehaztu gabeko beste hainbat.

Inora ez ez garrantzitan amets independentista hauetara baino, diru hori herriko proiektuetara bideratuko balira, besteak beste, oztopo arkitektonikoak murriztuko genituzke, gaigabeziak dituzten pertsonen etxeak egokitu, jubilatuen etxetean hobekuntzak egin, jolas parkeetan... Udalak dirua bere abentura partikularrean bideratzen duen bitartean, asko dira ditugun beharrak. Alkateak eta SAko zinegotziek amets egiteari denbora gutxiago eskainiko baliote Kultur Etxea eta Eguneko Zentroa amaiturik leudeke.

Herritarren izenean, herri honen bizi kalitatea hobetuko duen aurrekontua nahi dugu, askatasunean pentsatu eta bizi ahal izateko, horregatik hilak izan ez gaitezten. Ez ditugu aurrekontuak onartzen eta zuzenketa exigitzen dugu Usurbilgo herriaren beharretara bidera dadin.



EAJ/PNV: "Ez da proportzio onez egin"

Usurbilgo udalaren 2003ko aurrekontuen aurrean, Usurbilgo EAJ-PNVren ezetza honetan datza: Aurrekontuak Usurbilgo Sozialista Abertzaleak gurekin inolako kontakturik izan gabe eginikoak dira eta honenbestez guk ezin izan dugu hauen antolaketan parte hartu.

Pertsonal kopurua, ematen den zerbitzuarekin alderatuta oso handia da eta honek udalaren aurrekontuen, (5865 Euroen), 1/3 bat suposatzen du.

Langilegoa kontratatzeke unean, beharrak aztertzeke erarekin ez gaude ados. Batzuetan "beharra" berehala ikusten dute eta lanpostua sortzen dute. Besteetan benetako beharrak sortzen dira eta hauei aurre egiteko ekonomi zama handiegia onartzea litzatekeela argudiatuz ez dira beharrari aurre egiteko prest azaltzen.


Dakizuenek, aspalditik ari gara Usurbilgo Udal hau, Usurbildarron zerbitzurako izan beharko lukeen Udal hau, gertu-gertutik zaintzen, batez ere lanpostu eta zerbitzuen kontratazioak egiterakoan. Eta bere jokabidea gutxi-gutxienez diskriminatzailea dela, salatu nahi dugu.

Guk, Usurbildarrok, hau baino gehiago merezi dugu: garbi eta garden jokatu behar du udalak gai hauetan. Udala herriaren zerbitzurako da: herriarena eta herriarentzako.

Lanpostuak kontratatzeke deialdi publikoak egitean, udalak jatorrasunez eta zintotasunez jokatu behar du; honetarako, ordea, ezinbestekoa da partaide guztientzako baldintzak berberak izatea, eta hemen udalak ez du betetzen gutxienezko baldintzarik ere. Eta eredu izan nahi duen edozein udalentsat, hau ez da jokabidea; ez da batere kuxidatekoa eta mesedegarria. Gisa honetako eginbidetatik urruntzeko eskatzen diogu udalari herritarren arteko diskriminaziorik egin edo sortu ez dezan.

Beste aldetik, gure ustez, arloz arloko diru banaketak ez dira proportzio onez eta lehentasunak kontutan izanda egiten.

Adibidez: Gaztediarako 377.971,00 euroko aurrekontua dago, aldiz, gure ustez, garrantzia handiagoa duen gizarte ekintzetarako 261.031,46 euro Euskararako 125.726,83 euro bakarrik eta inbertsioetarako haurrekontuen %22,68 besterik ez da gelditzen.




ESKERRIKASKO OLENTZERO
 O PA RIAK EKARRI DIZKIGU ZULAKO
 ETA OSO POZIK GAUDELAKO.
 ONDO BIZI MENDIAN ETA ETORRI DATORREN
 URTEAN ZORION ETA URTEBERRI ON.
 OLENTZERO, EMAN ESKERRAK ERREGEEI ERE GURE
 PARTETZ
 UDARREGI IKASTOLAKO 5 URTEKO HAURRAK



BI BAKARRIK DIRA BERDINAK

Bat eta bera ematen
 dute, baina bi baka-
 rrik dira berdinak.
 Ezetz asmatu zein-
 tzuk diren berdin-
 berdinak?



Kale Nagusia USURBIL
 Tlf. 943 37 33 40
 943 37 09 10

LABE-GOXO
 Ordeztegia - Grafitegia

TABERNA-JATETXEA

ANTETA

EGUZKITZA, 4
 20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44

SERIGRAFIA
 TAnPOGRAFIA

Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
 Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa
 IRAGARKI SERIGRAFIA
 KAMISETEN INPRIMAKETA


Lehiaketa !!

Udal fototeka



EMAKUME HAU ZER EGITEN ARI DEN ESATEN JAKINGO AL ZENUKE?

Etxean dituzun 2002. urteko Noaua! hamaboskariaren ale guztien koadernaketa eskeintza doan.



Aurrekoaren erantzuna !!

ZEIN AUZOTAN DAGO ARGAZKIAN ABERTZEN DEN PASADIZO HAU?

Erantzuna: Udarregi baserria.
Irabazlea: Ez da asmatzailerik izan.



Denborapasak !!

● Usurbilgo ikastola

	Izurritea	Igoa	Ez emea	Digituz osatua	Erraz
	Ikaragarria	Uda	Argona	Alemaniko lurraldea	
▶	▼	▶	▶	▶	▶
●	▶				
Joan den urtekoak					
Gazte ederra	Asiako estatua		Edari alkoholdun		
Pl., landare mota	Soro		Suari dariona		
▶	▼		▶	Atari	▶
				Listua, istua	
Ez geza			Italiako sumendia		Izan
Ikurra			Pisu unitate		
▶			Kikara	▶	▶
			Sufrea	▶	▶
Gizon izena		Musika nota		Arabako alderdia	Potasioa
Biloak		Errep., gorotza		Bizkaiko herria	2
▶		▶	Bizkaiko ibaia	▶	Kasik
			1	▶	Oxigenoa
Bokala	Itsas hegaztia		▶		Zangoaren atal

Egilea: LUMA, O.E.

Goardiako farmaziak

Urtarrilak 17, ostirala

E/G: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte

Urtarrilak 18, larunbata

E/G: E: Gil Kale Nagusia, 24 Lasarte

Urtarrilak 19, igandea

E/G: E: Gil Kale Nagusia, 24 Lasarte

Urtarrilak 20, astelehena

E/G: Urbistondo, San Frantzisko, 1 Lasarte

Urtarrilak 21, asteartea

E: Iturralde, Kaleberri, Usurbil
G: Bulnes, Etxeberri auzoa, 1, Hernani

Urtarrilak 22, asteazkena

E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte
G: OA, Kaleberri, Usurbil

Urtarrilak 23, osteguna

E: Urbistondo, San Frantzisko, 1 Lasarte

G: Tanco, Idiziabal, 39, Urnieta

Urtarrilak 24, ostirala

E: Orue, Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte
G: Chucla, Kardaberaz, 48 Hernani

Urtarrilak 25, larunbata

E/G: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte

Urtarrilak 26, igandea

E/G: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte

Urtarrilak 27, astelehena

E: De Miguel, Nagusia 32. Lasarte.
G: Aizpuru, Latxunbe berri, 11 Hernani

Urtarrilak 28, asteartea

E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte

G: Etxebeste, Elkano 2, Hernani

Urtarrilak 29, asteazkena

E: Gil Kale Nagusia, 24 Lasarte

G: Bilbao, Urbietza 7, Hernani

Urtarrilak 30, osteguna

E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte

G: Gomez, Kale Nagusia 14, Hernani

Urtarrilak 31, ostirala

E: Urbistondo, San Frantzisko, 1 Lasarte

G: Bulnes, Etxeberri 1, Hernani

E: egunez. G: gauez (21:00etatik 09:00etara).
E/G: Egunez eta gauez

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia

7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) / 14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

7:15* / 9:00 / 12:45(T) / 13:45* / 18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia

8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia

11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) / 21:00 (T)

* Eskola egunetan

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Bai esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiardo kirolegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkartea 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- Bake epaitegia 37 23 36
- Oa farmazia 37 60 76
- Iturralde farmazia 36 33 95
- Zubietako Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

Datorren Noaua!

Urtarrila

As.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

● Hurrengo alea

Oharrak

ETXEBIZITZA

- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.
- Baju edo ganbara bat erosiko nuke. Deitu iluntzean. 943 36 02 13.
- Alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Urgentea da. Telf: 943 366 759.
- Konpartitutako pisu baten bila nabil alokatze-ko. Deitu 5:30etatik aurrera. 637 193 100.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185.
- Txaramuton 30 m2-ko garaje itxia. Deitu 666 646 847 zenbakira.
- Galtzaragaina elkartearen bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- Galtzaragainan 200 eta 300 m2-ko bi bi lokal alokairuan. Interesatuak juntako kideengana jo.
- Galtzaragainan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77.
- Garaje itxiak saltzen ditut, Kale Nagusian. 30 m, 18.000 euro. 15 m, 7.800 euro. 26 m, 9.000 euro. Telefonoa: 656 759 583.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gaez. 943 371447 (Belen).
- Umeak zainduko nituzke, arratsalde bi orduz. Tf: 647 220 966 (Mari Karmen).
- Lan bila nabil eta etxeko-lanak egingo nituzke, gaez edo egunez. 620 646 769.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbairetan, Deitu hona: 652 757 495.

Lan-eskaintzak

- Kamarera bat behar dugu asteburuetan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 36 33 58.
- Udarregi ikastolan ikasturte berrirako kirol

begiraleak behar dira. Telefonoak: 943 361 216/ 943 370 645.

- Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko eta 2 haurrak zaintzeko, goizeko 7:00etatik 11:00era neguan, eta goizeko 7:00etatik 13:00era udaran. Interesatuak 943-370289 telefonora deitu, 19.30tatik aurrera.
- Tabernari bat behar dugu. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.
- Tabernari bat behar da Txurut tabernan lan egiteko. Interesaturik bazaude, deitu 943 36 00 80 telefonora.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Opel Corsa kotxea salgai. 1500-Diesel, SS-AK. Telf. 943 37 01 09.
- Volkswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- Citroen ZX diesela salgai, SS-AW saltzen dut. Tf: 629 730 299 / 629 176 786.
- Scooter bat saltzen da, 125cc. Interesatuak deitu 607 23 32 55 telefono zenbakira.
- Vespa bat salgai, 200-TX markakoa. Telefonoa: 943 37 03 89.
- Furgoneta Ford Transit saltzen dut. telefonoa: 943 361 115.
- Kotxe bat salgai, SS-AP. Elbarrituentzat egokitu. Garajeaz zaindutakoa. 943 36 43 10 (gaez deitu).
- Aixam autoa salgai (ez du gida-baimenik behar). 943 55 08 47.
- Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko eta 2 haurrak zaintzeko, goizeko 7:00etatik 11:00era neguan, eta goizeko 7:00etatik 13:00era udaran. Interesatuak 943-370289 telefonora deitu, 19.30tatik aurrera.
- Usurbilgo frontoian egurrezko patinete txiki bat galdu da. Aurkitzen duenak mesedez kiroldegiko tabernan utzi edo deitu dezala 943 366 953 telefonora.
- Ford Transit salgai. 5 urte ditu. Prezio onean utziko nuke. 656 759 583.
- Katu polit bat oparitzen dut. 9 hilabetekoa. Emea. 637 193 100.

Txerrimunik ordainetan



Zorionak Enara!

Urtarrilaren 18an 3 urte beteko baitituzu. Jarraitu beti zure alaitasun handi horrekin eta muxu pilo bat!



Zorionak hiruo!

12an, 17an eta 20an zuen urtebetetze egunak dira eta ez dugu ahaztuko. Afaria ez dugu barkatuko! Etxekoen partez zorionak Loli, Ion eta Sebas.

HILDAKOAK

- **Fernando Perez Iturrioz**
2002-XII-28. Aginaga.
- **Ageda Telletxea Otxandorena**
2003-I-2. Kalezar (Konbentua).
- **Jose Izagirre Lopetegi**
2003-I-2. Bizkarre kalea.

JAIOTZAK

- **Jon Aranzazistroki Kaperotxipi**
2003-I-1. Usurbil.
- **Pello Ibargoien Alvarez**
2003-I-1. Usurbil.
- **Amaia Sasiain Garcia**
2003-I-7. San Esteban.

Txerrimunik ordainetan - Oharrak,
doaneko zerbitzuak dira.

Noaua! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3
Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil
noaua.k.e@euskalnet.net

Xinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behean,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87



txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Telf: 936 36 04 66

**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZIT

Goiz Argi etxea,
Kalezar
Telf: 943 36 50 95 - 6

Agenda



 URTARRILAK 21 - asteartea

-San Markos
Mankomunitatearen aurkezpen-hitzaldia. Arratsaldeko 19:30etan Pleno aretoan.

 URTARRILAK 27 - astelehena

- Odol ateratzea 19:00retatik 21:00tara, herriko anbulategian.

 URTARRILAK 30 - osteguna

- Santixabelak prestatzeko Jai Batzordearen lehen bilera udal pleno aretoan, 20:00etan.

 OTSAILAK 14 - ostirala

- "Ai, ama!" Hika Antzerki Taldearen antzezlanari Oiarde Kiroldegian. Aktoreak: Miren Gojenola, Pilar Rodriguez eta Ainhoa Aierbe. Zuzendaria: Agurtzane Intxaurraga. Jatorrizko liburuaren egilea: Arantxa Iturbe.



Musikaren Txokoa



Pantxoa eta Peioren itzulera

Euskal Herriaren oroimen kolektiboari itsatsita daude Pantxoa Carrere eta Peio Ospital lapurtarren kantuak. Etxamendi eta Larralde bezala, 70eko hamarkadako urte zail haietan euskal abertzaleen ahotsa eta bihotza izan ziren, hizkuntzari, aberri zapalduari, errepresaliatuei edota langileen etsipenari abesten baitzioten. Telesforo Monzonen eta Manex Pagolaren poemekin idatzitako hainbat kantu

belaunaldiz belaudiz zabaldu dira, euskal kantagintzaren klasikoak izateraino. Abesti apalak, ederrak eta hunkigarriak. Euskal kantagintzan puntako artistak. Disko berrian Lapurdiko kantu zaharren bilduma eskaintzen digu bikote ezagun honek. Mixel Ducau musikaria izan dute ekoizle lanetan.



Egin kontu



Bertso Eguna 2003

Urtarrilaren 25ean, larunbata, burutuko da Donostiako Kursaalaren aurtengo Bertso Eguna. Ekitaldi nagusia 18:00etan hasiko da. Afaria eta festa, ordea, Zubietako Araeta sagardotegian egingo da.

Ekitaldi nagusian, goi-mailako 10 bertsolari (Egaña, Lizaso, Silveira, Elortza, Lujanbio, Sorozabal, Irazu, Amuriza, Paya, Peñagarikano eta Sebastian Lizaso) ariko dira Joserra Garzia eta Unai Elizasuren aginduetara; Karitateko Benta taldeak bere emankizunaren zati batzuk eskai-

niko ditu gainera.

Afalostean ere hainbat saio (ohikoak, bereziak...) entzun ahal izango dira. Han arituko dira: Colina, Arzallus, Iñaki Gurrutxaga, Joxe Agirre, Jokin Uranga, Imanol Lazkano, Unai Iturriaga, Oihane Perea, Ruben Santxez, Manex Agirre, Iñaki Viñaspre, Irati Anda, Jon Azpillaga, Patxi Etxeberria, Aitor Mendiluze...

Sarrerak eskuratzeko: Bilintx megadendan, Donostian. Edota telefonoz, 943 217 798 zenbakian. Baita web-orri honen bidez: www.bertsozale.com.

N•I
Ileapaindegia

MISTOA

*Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura*

 Zubiaurrena, 5 - 1.a
Tel.: 943 36 19 51

Iturgintza - Gasa - Berokuntza


J. Orbegozo

Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 659 602789

Tarte honetan zure
publizitatea jarri
nahi baduzu, deitu
943 36 03 21
telefonora.
URTE BERRI ON!

Noaia! hamaboskaria on-line



- :: Usurbil**
- ... Historia
- ... Kokapena
- ... Auzoak
- ... Artea
- ... Herriko produktuak
- ... Sagardoa
- ... Angula
- ... Errebotea
- ... Jai aipagarriak
- ... Zerbitzuak
- ... Ibilbide interesgarriak
- ... Apunte interesgarriak
- ... Herriko taldeak
- ... Bai, esan? Telefono
- ... interesgarriak
- :: Kultur Elkarte**
- ... Nor gara?
- ... Udal-Fototeka
- ... Merkataritza
- ... Beka-Deialdiak
- ... Argitalpenak
- ... Hitzarmenak
- ... Kultur ekintzak

- :: Agenda ::**
- IRAILAK 13 Ostirala**
· Pilota Txapelketa, 22:00etatik aurrera frontoian.
- IRAILAK 20 Ostirala**
· Bertso afaria Xabier Silveira eta Mantxirekin. 21:00etan Gaztetxean. Txartelak Txiriboga tabernan hilaren 18-ra arte.
- IRAILAK 21 Larunbata**
· Santueneako festak. 10:00etatik 13:00etara futbolina eta ludoteka. 12:00etan toka txapelketa. 13:00etan buruhaundiak. 16:00etatik 18:00etara futbolina eta ludoteka. 16:00etan mus txapelketa. 18:30etan erne! aparra!!!
- IRAILAK 22 Igandea**
· Santueneako festak. 12:00etan herri kirolak. 14:30etan auzo bazkaria.

Gure webgunea osatzen eta berritzen! Orain elementu gehiago!

- Zuzenean parte hartzeko aukera
- Tren eta autobus ordutegia
- Galdeiozu atala

Parte hartu gure webgunean!
Bidali zure
Albisteak
Ekitaldia
Iritzia

Eusko Tren
neguko autobus eta tren ordutegia

Hemen

Noaia!!

Munduan

HASI DA AURTENGO TXOTX DENBORALDIA!



TXOTXETIK

- Urte guztian egunero
irekita, astelehenetan izan ezik

- Telf: 943 36 67 10
943 37 06 68

AGINAGA sagardotegia



AGINAGA

Araeta



Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera!

Telf: 943 36 20 49 - 943 36 66 04

Faxa: 943 36 60 73

Arbitza bidea, 20.160 ZUBIETA

www.araeta.com

ASTIAZARAN sagardotegia



Zubieta, Telf: 943 36 12 29

- Urtarrilaren 9tik aurrera irekita
eguerditan eta gauean

- Astelehenetik larunbatera irekita

- Menua: 21 euro

Egin txotx!

Zain duzu aurtengo sagardoa. Txotx!



SAIZAR Sagardotegia

Kale-zahar Auzoa, 39

20.170

USURBIL
GIPUZKOA

Tel. 943 362 228

WWW.sidrassaizar.com

